

ARAZOAK KONPONTZEN



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. maila

Ana Belén Vega

ARAZOAK KONPONTZEN

Irakasgaiak: Euskara Hizkuntza eta Literatura, Giza Zientziak, Herritartasuna, Natur Zientziak

Gaia: Narraziotik argudiora

Nivel: 2 DBH

Saio kopurua: 6 saio

Proposamenaren testuingurua:

Egunero testuak ekoizten ditugu, bai ahoz bai idatziz, horretarako testuen ezaugarriak ezagutu behar ditugu, gure komunikazioa hobetzeko eta, batez ere hobeto ulertuak izateko.

Sekuentzia honen bidez, testuen ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu, narrazio batetik abiatuta argudioko testu bat idatziko dugu, narrazio horretan agertzen diren arazoei konponbide eman nahian. Ikasleek argudio testua idatziko dute eta gatazkak eta arazoak konpontzeko aholkuak emango dituzte. Ikastetxeko aldizkarian argitara eman ditzakete aholku horiek.

Landuko diren oinarritzko gaitasunak:

- ✓ Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (3., 4., 5., 6., jarduera guztietan)
- ✓ Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (2.,9.,10.jarduerak)
- ✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna(2., 9., 14. jarduerak)
- ✓ Zientzia, teknologia eta osasun-kulturarako gaitasuna (11. jarduera)
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (1., 2., 6., 7., 8., 14. jarduerak)
- ✓ Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (5, 11, 12. jarduerak)

Helburu didaktikoak:

- ✓ Argudiozko testua planifikatzea eta idaztea.
- ✓ Testu-tipoak eta beraien ezaugarri nagusiak ezagutzea.
- ✓ Unitatearen helburuez eta ebaluazioaz hausnartzea.
- ✓ Ahozko eta idatzizko erabilerak hobetzeko auto-ebaluazio eta auto-zuzenketa estrategiak erabiltzea.
- ✓ Informazioa bilatzeko eta testu bat ekoizteko IKTak erabiltzea.
- ✓ Bizkaierari buruzko ikerketatxoak burutzea.
- ✓ Ahoz eta idatziz koherentziaz eta zuzentasunez aritzea.
- ✓ Nerabeek izan ditzaketen arazoei buruz hausnartzea.
- ✓ Bizitzan sortzen diren gatazkak konpontzeko estrategiak proposatzea.
- ✓ Jarrera positiboa eta aktiboa erakustea esperientziak eta iritziak adieraztean.

Edukiak:

- ✓ Plangintza egin ondoren, euskarri digitalean, argudiozko testuaren ekoizpena.
- ✓ Testu-tipoen ezaugarrien azterketa eta erabilera.
- ✓ Oinarritzko hizkuntza eta diskurtso-elementuen erabilera, ideiak testu barruan kohesionatzeko.
- ✓ Sinonimoen erabilera.
- ✓ Idazmenaren garrantziaren balioespena.
- ✓ Proposatutako testu idatzien ulermena.

- ✓ Ahozko eta idatzizko erabilerak hobetzeko auto-ebaluazio eta auto-zuzenketa estrategien erabilera.
- ✓ Taldeko lanean parte hartzea.
- ✓ Ahozko azalpenen ezaugarriak.
- ✓ Euskarak dituen barianteen azterketa (euskalkiak)
- ✓ Informazioa esanguratsuaren bilaketa IKT edo beste baliabideak erabiliz.
- ✓ Gazteen arazoen gaineko hausnarketa eta konponbideen proposamenak.
- ✓ Berrikustearen garrantzia.
- ✓ Jarduerak egiterakoan jarrera positiboa eta aktiboa.
- ✓ Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera.

Jardueren sekuentzia:

Planifikatzea:

1. Zer ikasiko dugu? Helburuak azaltzen
2. Nork ebaluatuko du? Zer? Nola?
3. Zer dakizu?

Gauzatzea:

1. Ipuina irakurtzen.
2. Bizkaiera non?. Zer egiten du hizlari on batek?
3. Aditza bizkaieraz. Logika ariketak: taulak betetzen
4. Zer da sinonimia?
5. Sinonimoak ematen
6. Luisitoren arazoak. Enpatia sortzen.
7. Arazoei konponbidea ematen.
8. Drogak eta euren eragina

Aplikazioa:

12. Argudio-testua idazten: Gazteen arazoak konpon daiteke?
13. Testu moten ezaugarriak
14. Ebaluatzen: nire lana eta sekuentzia hau

Ebaluazioa

Adierazleak:

1. Ea argudio-testua planifikatu eta idazten duen egitura, egokitasuna, koherentzia, kohesioa eta zuzentasuna mantenduz.
2. Ea testuen ezaugarriak ezagutzen dituen.
3. Ea proposatutako testuak idatzikoak nahiz ahozkoak ulertzen dituen.
4. Ea informazioa garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen.
5. Ea logika erabiltzen duen zeregina egiterakoan.
6. Ea auto-ebaluazio eta auto-zuzenketa-estrategiak erabiltzen dituen.
7. Ea talde lanean parte hartzen duen eta besteen parte hartzeak errespetatzen dituen.
8. Ea landutako kohesiorako mekanismoak ezagutzen eta erabiltzen dituen.
9. Ea berrikusketa lana egiten duen.
10. Ea testua egoki eta zuzen aurkezten duen.
11. Ea euskalkiei buruz ikasitakoa ezagutzen duen.
12. Ea IKTak autonomiaz erabiltzen dituen.
13. Ea jarrera positiboa eta aktiboa duen bere esperientzia eta ikuspegia adierazten.

Tresnak:

- ✓ Jardueren sekuentzian:
 - ✓ Hasierako ebaluazioa: 3. jarduera
 - ✓ Prozesuaren ebaluazioa: gainontzeko jarduerak
 - ✓ Azken ebaluazioa: 14. jarduera eta jardueren zuzenketa
- ✓ Irakasleak erabiliko duen beste edozein:

ARAZOAK KONPONTZEN

1. JARDUERA

Ondoko testu hau sekuentzia honetan egingo dugunaren laburpentxo bat da. Irakur ezazu testua eta azpimarratu zeintzuk izango diren lortu behar ditugun helburuak:

Sekuentzia honetan testuen ezaugarri nagusiak berrikusi, edo agian, ikasiko dituzu. Zertarako? Testuak ulertzeko eta ekoizteko oso garrantzitsua delako ezaugarri horien berri izatea. Gainera, zure komunikaziorako gaitasuna hobetuko duzu eta horrela errazago egingo zaizu besteak ulertzea eta noski, zu ere hobeto ulertua izango zara. Garrantzitsua zure eguneroko bizitzarako, ezta?

Narrazio batekin hasiko zara, testu hau bizkaieraz dago, agian, oso gutxi dakizu euskalki honi buruz. Ez kezkatu! Ikerketa txiki baten ondoren, ikusiko duzu zein erraza izango den! Seguruenez, pentsatuko duzu hitz eta egitura gramatikal guztiak ez badituzu menperatzen oso zaila izango dela ipuin hau ulertzea, baina testuinguruaren laguntzaz ez da hainbesterako izango.

Irakurriko duzun ipuinaren protagonistak arazo piloa izango ditu. Hori guztia aztertuko duzu eta arazoei konponbidea ematen saiatuko zara. Azkenean, ondo planifikatu eta gero, argudiozko testu bat idatziko duzu, idazle on batek idazteko egiten duena ahaztu gabe, noski!

Orain bete taula hau:

UNITATE HONEN HELBURUAK:
Lan hau amaitu ondoren gai izango naiz : • Testuen ezaugarriak gogoratzeko • Testuak sailkatzeko • Gai bati buruz ikertzeko • • • • •

2. JARDUERA

Taldeka bete hurrengo taula, horretarako gainbegiratu proposatutako jarduera guztiak eta erabaki :

- ✓ **nork** ebaluatu behar duen (aukeratu 1, 2 edo 3): zuk zeuk, irakasleak, taldekoek.
- ✓ **zer** ebaluatu behar den: jardueraren zein parte, agian ezer ez, ...
- ✓ **nola** ebaluatu: jarduerari nota ipiniz, horri buruz azterketa eginez, ahoz galdetuz ...
- ✓ **portzentajea**: sekuentzia osoak balio duen % 100 jarduera guztien artean banatu.

Jarduera	Nork?	Zer?	Nola?	Portzentajea
3	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
4	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
5	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
6	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
7	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
8	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
9	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
10	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
11	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
12	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			
13	o Irakasleak o Taldekoek o Zuk zeuk			

Taldeka akordio batera heltzen zaretenean, taldekide batek beste guztiei kontatu beharko die eta talde guztien artean akordio batera heldu.

3. JARDUERA

Gizakiok, elkarrekin komunikatzerakoan, **testuak** eratzen ditugu. **Ahoz nahiz idatziz** testua erabiltzen dugu **ideiak adierazteko** eta komunikazioa gauzatzeko. Orduan, zer da testua? Ba, **testuinguru jakin batean** idatziz nahiz ahoz osatutako **komunikazio unitatea** da **testua**. Baina zerbait azaltzen dugunean, **helburu edo asmo** jakin batekin egiten dugu. Helburuaren arabera, bost testu-tipo bereiz daitezke. Lotu hemen dituzun testu-tipoak eta helburuak geziak erabiliz:

TESTU- TIPOAK
Azalpen-testua
Argudio-testua
Narrazio-testua
Elkarrizketa-testua
Deskribapen-testua

HELBURUA
Zerbait edo norbait nolakoa den adieraztea edo zehaztea
Denbora-tarte batean pertsonaia batzuei gertatutakoa kontatzea
Hartzaileari gai bat ezagutaraz eta ulertaraztea
Solaskide batzuen artean hitz-trukaketa islatzea
Hartzailea konbentzitzea, edo behintzat, hausnarketa egitera bultzatzea

4. JARDUERA

1982an Eubako Lauaxeta ikastolan ipuin lehiaketa bat egin zen. Ipuin asko aurkeztu ziren, hauetatik batzuk aukeratu, laburtu eta eratu zituzten "IZPIAK" liburuan argitaratuak izateko. Hemen duzue liburu horretan dagoen ipuin bat, ikusten duzuenaz, bizkaieraz dago idatzita. Irakur ezazue eta hutsuneetan idatzi baliokideak euskara batuan:



KOKOMARRO

Luisito eskolan azkarra zan -.....- baina apurtxo bat kikiltxo. Ondo ikasten eban-.....- eta horregaitik maisuak asko maite eban-.....- eskolan, besteak baino gehiago.

Luisito egunero joaten da eskolara, baina gaur ezbehar bat jazoten jako-.....-. Eskolako kristal bat apurtzen dabe-.....- ikasgelakoak. Maisuak listea pasatzen dau -.....- nor dan -.....- jakiteko. «Ni ez, ni ez», erantzuten dabe -.....- danak. Orduan maisuak danentzat gertatzen dau-.....- zigor bat. Baina, atzeko norbaitek, «Luisito izan da», esaten dau-.....-.

«Luisito?», maisua harritu egiten da, baina patioako papalak batzen bialtzen dau-.....-. Luisito, jakina, negarrez doa; ez patioako papalak batu behar ditualako, lagunak saldu dabelako baino-.....-.

Luisito maisuagaz -.....- bakarrik dagoanean bera ez dala izan esaten deutso-.....-, Koko Gorri baino-.....-. «Nik bai! », esaten deutso-.....- maisuak. «Zergaitik ez deustazu-.....- esan lehenago?».

Koko Gorri deitzen deutsie-.....- klaseko lagunak, euren-.....- jefe edo buruari. Maisuak hau jakin ondoren, Koldo Gorri bialtzen dau-.....- patioako papalak batzen. Ikaskideak, Koko Gorri papalak batzen ikusten dabenean-.....- -barre egiten deutsie-.....- eta esan: «Horrek guri ahal deusku-.....-baina maisuari ez». Beste batzuk, oster, isilik dagoz-.....-, Koko Gorriren bildur dira ta. Luisito ere isilik dago. Koko Gorrik, papalak batu ondoren, Luisitori, «txibato» deitzen deutso-.....-lagun guztien aurrean.

Luisito negarrez heldu da gaur etxera «txibato» deitu deutsielako-.....-. Baina, aitik jakin dauanean -.....-zer deitu deutsien-.....-, aita hasarre bizitan ipini da eta zarataka hasi jako-.....-. Garriko ugelaiz bero-bero egin dau-.....-.

Egun batzuk barru, Koko Gorrik bakezko pipea erretzen konbidatzen dau-.....- Luisito. Hojalatazko txabola zahar baten egiten dabe-.....-batzarra. Koko Gorriren lagunak porroa eskuz-esku igarotzen dabe-.....-. Luisitok ez dau-.....- erretzen, baina «txibato» susmoa urruntzeko, hango keak iruntzi bai. Eta jakina, porroa erretzeko, astero edo hamabostero, taka-taka ordaindu behar barria erosteko.

Hamabi urte daukaz-.....- Luisitok. Asteroko paga osoa astelehenean amaitzen jako-.....-. Gero, han, hor, hemen eskatu egin behar Koko Gorriren zorrak ordaintzeko. Koko Gorriren taldea, lehen baino sekretuagoa da. Orain «txokolatea» erretzen hasi dira. Eta jakina, hau garestiagoa da, horregaitik, Luisitok lehen baino diru gehiago behar dau-.....-. Luisitori ez jako-.....-heltzen asteroko diruaz eta diru barik doa Koko Gorriren txabolara.

- Eta dirua? - esaten deutso-.....-Koko Gorrik Luisitori, samatik oratuz.
- Ekarriko deusut, ekarriko deusut-.....-, esaten deutso-.....- Luisitok estu eta larri.
- Jakina, ekarriko dozula, zer uste dozu-.....-ba, hau ume-gozoki bat dala, ala?. Hau ordaintzeko diru asko behar dogu-.....- Hau ez da umeen gauza bat, hau gizonena da, entzun?- esaten deutso -.....- Koko Gorrik.

Egun baten, Luisitoren gurasoen gelatik, zilarrezko aspil bat faltaten da.

- Zeu izan zara, seme?- itauntzen deutso-.....- amak.

- Bai, neu izan naz-.....-Zorrak ordaindu behar dodaz-.....-, bestela hil egingo nabela-.....-esan deuste -.....- erantzuten deutso-.....- Luisitok.

Luisitoren aita eta ama oso hasarre dagoz-.....-, batez ere aita. Garriko ugela kendu eta barriro ere bero-bero egiten dau-.....-, diru eskalea nor izan dan jakiteko. Halako baten, aitaren ugelak ezkerreko begia gorritzen deutso-.....-Luisitori! Amak medikuagana daroa-.....-badaezpadan.

- Nork egin deutso-.....-hau?», itauntzen deutso -.....-medikuak umeari.

Luisito isilik dago. Amak kontatzen dau-.....-dana. Epailariak, «txikien auzitegira» eroateko gauzea dala esaten dau-.....-. Gero aitari itauntzen deutso-.....-.

- Nik bere onerako jo dot-.....- Bere atzetik nor dabilen jakin nahi dodalako jo dot-.....- -esaten dau-.....- aitak.

Baina Luisito, Koko Gorriren bildur da eta ez dau -.....- ahorik askatzen. Hojalatazko txabolara ere bildur dalako joaten da. Gurasoen ahaleginak alperrekoak dira, baina Luisito konturatzen da bere gurasoak sufritzen dagozala-.....- eta arazo hori konpontzea gura dau-.....-.

Gurasoak mendikuagaz-.....-berba egiten dabe-.....-eta Luisito drogaminuen gaixotegira joateko prest dago. «Bai, urrundu egin gura dot-.....-, hemendik askatu egin gura dot-.....-, bizi egin». Droga mundutik aldentzeko ahalegin handiak egin behar ditu Luisitok. Ez da berezkoa, ez.

Hile batzuetara Luisito beste bat da. Aintzina galdu eban-.....-zerua barriro lortzen dau-.....-.Gurasoak ere beste pertsona baten antza aurkitzen deustie-.....- Luisitori.

Orain Luisito kalean dabil osatuta. Halako mutil batek agurtzen dau-.....-. Mutil honek narruzko jake baltz bat dauka soinean. Koko Gorri da eta antzinako adiskidetasuna ospatzeko zuri bat hartzen gonbidatzen dau -.....-Luisito. Honek ez daki zer egin, ertzainari deitu ala ihes egin. Baina zuri bat hartzera doaz.

- Badakit zurea: txokolatea ahaztu dozula- esaten deutso-.....- Koko Gorrik.

- Ez dot -- erreko eta gainera txibatoa ere ez nazala-.....-erakutsiko deustat-.....-honi gaur - esaten dau-.....- bere artean Luisitok.

- Zeuk dakizun zuri bana biontzat- esaten deutso --Koko Gorrik barmanari, keinu eginaz.

Luisitok edaten dau-.....- edari ha-.....-, baina laster zorabiotzen da. Aurrean zerraldo eta begiak zuri-zuri eginda dago, dardaraka. Medikuak berjausialdia dala dino eta beharrezkoa dala zelango-.....- drogea hartu dauan-.....-jakitea, osagai egoki bat emoteko-.....-. Barriro ere drogaminuen gaisotegira daroe-- Luisito.

Orain hamabost urte daukaz-.....-, hil beharrean aurkitzen da. Badakizue zein dan Luisitoren gaitza eta ezer egiten ez badozue-.....-, laister, hil egin dala entzungo dozue-.....-.

Arerioa salatzea, «txibatoa» izatea dala uste dozue -- oraindino? Kokomarroari kokoa kentzeko ordua da.




F. ZUBIAGA (moldatua)

5. JARDUERA

Euskaldun guztiok darabilgun hizkuntza euskara da, baina ez da modu berean hitz egiten Euskal Herri osoan. Hitzak, aditzak, azentua, ahoskera... nabarmen aldatzen dira leku batetik bestera. Hori dela eta, euskalki desberdin batzuk bereiz daitezke Euskal Herrian.

- Zer esan nahi du "euskalki" hitzak?
- Zenbat daude?
- Non mintzatzen dira?
- Euskalkien mugak eta lurraldeenak bat datoz?
- Zer dira gehiago, euskalkiak ala lurraldeak? Zergatik?

EUSKAL HERRIA



Taldeka ikertu hau guztia Interneten edo entziklopedia batean eta idatzi txosten bat galdera hauei erantzunez. Euskalkien mapa hau ere margotu eta txostenean itsatsi (Interneten ere bilatu dezakezue euskalkien mapa). Gero, beste taldekoei azaldu bilatutakoa. Aukeratu dezakezue taldeko bat hizlaria izateko edo, bestela, denen artean egin dezakezue, besteek adi entzungo dute ahozko azalpena eta hurrengo taula beteko dute:

AHOZKO AZALPENAK					
	1go. taldea	2. taldea	3. taldea	4. taldea	5. taldea
Zer egin dute ondo?					
Zer hobetu behar dute?					

Hizlari guztiei entzun ondoren, talde bakoitzak bere taulan idatzitakoa esango die besteei eta denon artean beteko duzue hurrengoa:

Hizlari on baten ezaugarriak	
	•
	•
	•
	•
	•
	•
	•
	•

6. JARDUERA

Nahiz eta bizkaiera ez jakin, gai izan zara testua ulertzeko eta euskara batuan baliokideak emateko. Orain saiatu galdera hauek erantzuten:

- Zergatik uste duzu posible izan dela hau egitea?

.....

.....

- Zerk lagundu dizu?

.....

- Den-dena ulertu behar da testu bat ulertzeko?.....

Orain, logika pixka bat erabiliz, saiatu hurrengo taulak betetzen:

NOR – NORK 3. pertsona Orainaldian		
	Bizkaiera	Batua
Nik		Dut/ditut
Hark		
Guk		
Zuk		
Zuek		Duzue/dituzue
Haiek		



Zeintzuk dira desberdintasunak?

.....

.....

Testuan topatu dituzu orainaldiko nor-nori-nork forma batzuk: deutso (dio), deustazu (didazu), deusie (diote)... Zeintzuk gehiago? _____

Forma horiek guztiak aztertu eta saiatu taulak betetzen.

Euskara batuan Nor – nori – nork (orainaldia)		
	NORI	NORK
D i(zki)		
		
		
		
		
		
		

Bizkaieraz Nor – nori – nork (orainaldia)		
	NORI	NORK
D eu (z)		
		
		
		
		
		
		

Ematen du oso sistema desberdinak direla, baina ez da horrela. Komentatu desberdintasunak.


.....

.....

7. JARDUERA

Testu on batek hurrengo ezaugarriak izan behar ditu:

- egokitasuna
- koherentzia
- kohesioa
- zuzentasuna



Hemen dituzu definizioak. Zein ezaugarri dagokio bakoitzari?

.....Testua osatzen duten elementuak ondo lotzea da.

.....Hizkuntzak eskaintzen dituen aukera linguistikoetatik komunikazio egoera bakoitzeko egokiena aukeratzea da.

.....Hizkuntzaren fonetika, ortografia, morfosintaxia eta lexikoa behar den moduan erabiltzea da.

.....Testuko ideien eta informazioaren egituraketa, ordena, progresioa... zaintzea da.

Esan dugunez, testuko zatiak (hitzak, sintagmak, perpausak, paragrafoak) elkarrekin lotzeko erabiltzen diren moduei **kohesioa** deitzen diogu. Kohesio prozedura asko daude, bai perpausaren barruan, bai perpausaren gainetik. Hauen artean **sinonimia** dago. Zer da?

.....

Zertarako balio du? Aukeratu (posible da bat baino gehiago):

- esan gabe uzten dugun elementua ulertzeko
- errepikapen hutsa saihesteko asmoz
- testua planifikatzeko eta antolatzeko
- arintasuna emateko
- testuko elementuen arteko erlazioak markatzeko



8. JARDUERA

Hurrengo hitzak testuan ageri diren hitz batzuen sinonimoak dira. Topa itzazu hitz horiek:

Beldurti, lotsati	
Zorigaitz	
Igortzen	
Berriz, aldiz	
Ikara, izu	
Uhala	
Gabe	
Bai horixe!	
Plater	
Galdetzen	
Eskeko	

Epaile	
Hitz egin	
Izatezko, jatorrizko	
Berrerortze	
Eritegira	
Etsaia	
Mamarro	
Drogazale	
Hil zorian	
Gaiso	

Baina hurrengoak ipuinean ageri dira, eman sinonimo bat edo azaldu esanahia:

Azkarra:	
Jazotzen:	
Listea:	
Gertatzen:	
Ondoren:	
Zarataka:	
Bero-bero egin:	
Hojalatazko:	
Batzarra:	
Igarotzen:	
Iruntzi:	

Zorrak:	
Samatik:	
Oratuz:	
Ez du ahorik askatzen:	
Ahaleginak:	
Alperrekoak:	
Medikuarekin:	
Aldentzeko:	
Barmanari	
Osagai:	
Kokomarro:	

Zein ariketa kostatu zaizu gehien? Zergatik?

.....

.....

9. JARDUERA

Ipuina honela amaitzen da: *“Arerioa salatzea, “txibatoa” izatea dela uste duzue oraindino? Kokomarrori kokoa kentzeko ordua da”*. Zuk zer uste duzu? Zer esan nahi du azken esaldiak?

Baina ‘txibato’ izatea ez da Luisitoren arazo bakarra izan, klasean, etxean, lagunekin... leku guztietan arazoak! Denon artean saiatu identifikatzen Luisitoren arazoak, arbelean idatzi guztien iritziak eta gero, taula honetan idatzi:

LUISITOREN ARAZOAK
• • • • • •

Gatazkak eta arazoak konpontzea ez da batere erraza, agian enpatia pixkarekin... Baina zer da hori? Irakurri eta aztertu:

Zer da enpatia?



Enpatia prozesu kognitiboen elkarrekintza da, hau da, beste baten lekuan jartzea, bera bezala sentitzea, bestea konprenitzea eta laguntzeko grina adieraztea. Horretarako, garrantzitsua da besteen beharrian eta interesak, sentimenduak, baloreak, iritziak eta arrazoiak ezagutzea. Baita beste pertsonetatik entzute, elkarrizketa eta aniztasunarekiko errespetuzko jarrerak lortzea ere eta jokaera altruista edo laguntzazkoak eskuratzea.

10. JARDUERA

Batzuetan jendeak ez daki zer egin bere arazoekin eta aldizkari batzuetako atal berezi batera idazten dute aholku eske. Han argitaratu egiten dute aditu batek proposatutako konponbide bat.

Orain aldizkariakoak zuek izango zarete. Horretarako, aurreko jardueran aurkitu dituzuen arazo kopuru beste talde sortu, bakoitzak gauza bera egingo du, labur-labur azalduko du arazoa aldizkarira bidaltzeko izango balitz bezala eta gero adituak izango balira bezala aholku bat emango dute arazo hori konpontzeko. Ez ahaztu enpatiarena ...

Talde guztiek konponbidea idatzi ondoren beste taldekoei irakurri bai arazoaren gutuntxoa bai emandako konponbidea, eta taula bete:

ARAZOAK	KONPONBIDEAK

11. JARDUERA

Eta esango duzue “*ez da gehiegizkoa, bada, droga pixka bat hartzeagatik hiltzea?*” ... Badirudi amaiera hori istorio honen amaiera posible izatea, ikertu pixka bat eta ikusiko duzu egia dela, helbide honetan, adibidez, argi azaltzen dira drogen eraginak.

http://www.gazteaukera.net/o79/O79GeneralServlet?ACCION=BUSCAR&COD_PADR E=4&COD_HIJO=40012&COD_IDIOMA=E

Taldeka taula bete eta gero, denak elkarrekin, hitz egin gai horretaz beste taldekoekin:

DROGAK	ONDORIOAK

Topatu duzue baten bat heriotza eragiten duena?

12. JARDUERA

Seguruenez, hurbiletik ezagutuko duzu Luisitoren antzeko arazoak dituen norbait. Gogoratu kontakizun hau orain dela 25 urte baino gehiago idatzi zela. Oraingo gazteen arazoak berdinak dira? Gazte guztien arazoak ote dira? Konpon daitezke? Aztertutako hau guztia kontuan hartuta, argudio-testu bat idatziko duzu. Baina zer da **argudio-testu** bat?

Argudio testua

Arazo edo gertakizun baten inguruan dagoen tesi bat egiaztatzeko edo baztertzeko ematen diren kontrako edo aldeko arrazoiak buruturiko testua da argudio-testua. Hartzailea konbentzitzea edo hausnarketa egitera bultzatzea du helburu eta igorleak beti bere iritzia ematen dituenez, guztiz subjektiboa da. Testu hauen egiturak, oro har, eskema honi jarraitzen dio:

1. **Tesia** (uste, iritzi, jarrera) proposatu.
2. **Argudio sendoak** (adibideak, datuak, begi bistako gertakizunak, instituzio edo pertsona ospetsuek aipatutakoak, logikoak...) baliatuz, tesia egiaztatu edo frogatu.
3. Testuan argudioekin frogatuta geratu den ekarpen edo tesi berria, hau da, **ondorioa**, idatzi.

Testu hauetan oso erabilgarriak izan daitezke hurrengoak:

- ❖ *Esan, iritzi, erantzun, uste, argudiatu, errefusatu, baieztatu,...* motatako aditzak.
- ❖ Menpeko perpaus hauek: *kausazkoak* *-(e)lako, -(e)nez ...*) eta *kontzesiboak* *(...arren, ba- ... ere, nahiz eta...)*
- ❖ Arrazoiak gehitzeko antolatzaileak: *baita ere, gainera, are gehiago, ez hori bakarrik, batetik... bestetik..., bestalde,...*
- ❖ Arrazoiak kontrajartzeko antolatzaileak: *aldiz, berriz, baina, hala ere, edozein modutan, dena den, nahiz eta, honen aurka, ordez, beharrean...*
- ❖ Ondoriorako: *esandakoaren arabera, ondorioz, orduan, beraz, honela, ondorio gisa, laburbilduz, horregatik, hau guztia dela eta, arrazoi hauengatik ...*

Zure testua idatzi baino lehen gogoratuko dugu **zer egiten duen idazle on batek**:



- ✚ **Asmo bat du**: idazten duen testuarekin badaki zer lortu nahi duen.
- ✚ **Irakurleak nortzuk** izango diren kontuan hartzen du.
- ✚ **Planifikatu** egiten du testua. Ideiak bildu eta antolatu eskema batean.
- ✚ Testua **idazten** du. Eskema testu idatzia bihurtuko du.
- ✚ **Laguntza** erabiltzen du: hiztegiak, informazio iturriak, gramatika eta ortografia liburuak...
- ✚ **Birpasatu** egiten du idatzitakoa, ea betetzen duen hasierako helburua, eta beharrezkoa bada **zuzendu** ere bai.

Orain zure txanda da, idatzi argudio testua eta ez ahaztu gaia: **Konpon daitezke gazteen arazoak?** Word prozesadorea erabili testua idazteko.

** **Kontuan izan** idazle on batek jarraitzen dituen pausoak: pentsatu asmoa, irakurleengan, antolatu zure ideiak eskema baten, idatzi testua eta birpasatu, nahi baduzu eman zure lagun bati irakurtzeko eta berak lagunduko dizu birpasatzen.*

13. JARDUERA

Askotan testu-tipoak ez dira “garbi-garbi” azaltzen; beste testu batzuetan txertatuta agertu ohi dira. Adibidez, narrazioetan, deskribapenak, elkarriketak eta beste erako testu-tipoak ager daitezke. Argudiozkoetan, esaterako, azalpenak ere agertzen dira. Konturatu zara sekuentzia honetan testu-tipo guztien adibideren bat egon dela? Saiatu topatzen eta bete ondoko taula:

TESTU- TIPOAK	IKUSITAKO ADIBIDEA
Azalpen-testua	
Argudio-testua	
Narrazio-testua	
Elkarriketa-testua	
Deskribapen-testua	

Hemen dituzu testu-tipoen ezaugarri batzuk, saiatu bakoitza berari dagokion lekuan sartzten:

- Gertakizunak denbora eta leku baten
- Ideiak subjektibotasunez defendatzen dira
- Pertzepzioak eta sententzioak
- Aurkezpena – korapiloa – konponbidea edo bukaera
- Pertsonaia desberdinak
- Galderak eta erantzunak
- Sarrera – garapena – ondorioa
- Ekintza-segida
- Xehetasunak zerrendatzea
- Hasierako tesia – argudioaren gorputza - ondorioa
- Solaskideen agerpena
- Ideien aurkezpena, objektibotasuna, argitasuna, zehaztasuna, ordena...

TESTU-TIPOA	EZAUGARRIAK	TESTU-GENEROAK
		Ipuina, eleberri, kondaira, fabula, biografia, berria, kronika, dokumentala, akta, aitorpena, historia...
		Olerkiak, ipuinak, istorioak, horma-irudia, iragarki laburra, gida turistikoa, grafikoa, katalogoa, ziurtagiria...
		Elkarriketak, eztabaida, inkesta, antzezlanak, narrazio barruko elkarriketak, mahai-ingurua, debatea...
		Txostena, katalogoa, dokumentala, testuliburua, idazki informatibo didaktiko eta zientifikoak, laburpena...
		Editoriala, erreklamazioa, tesia, eskabidea, iritzi artikulua, debatea, eztabaida...

14. JARDUERA

Birpasatu 1. JARDUERAN idatzi dituzun helburuak eta gehitu besteren bat edo ezabatu bete ez diren helburuak eta gero, hasieran adostutako ebaluazioari ekin.

Orain lana amaitzeko zure iritzia eman eta klasekideekin batera adostu:

- ✓ Zer ikasi duzu sekuentzia honetan?
- ✓ Egindako jardueren artean zein gustatu zaizu gehien? eta gutxien?
- ✓ Zerbait aldatzekotan zer izango litzateke? Nola aldatuko zenuke?
- ✓ Zerbait gehiago proposatuko zenuke?
- ✓ Zer iruditu zaizu zaila?
- ✓ Nola konpondu zara zailtasunak gainditzeko?
- ✓ Behar izan duzun laguntza izan duzu?
- ✓ Taldeka ari zaretenean arazoren bat izan duzu? Nola konpondu duzue?
- ✓ Ikasi dituzun edukien artean zein izan da baliagarriena edo gehien gustatu zaizuna?
- ✓ Eman sekuentzia osoaren balorazioa.